



BALOREZKO PROPOSAMENA



Ander Barkin
Miren Garmendia
Maialen Etxebeste
Aitor Aiestaran

BALOREZKO PROPOSAMENA

Aitor Aiestaran, Ander Barkin, Maialen Etxebeste eta Miren Garmendiak osatzen dugu taldea. Oraingoan, pertsiana estilo berri bat proposatzekotan gatoz, berrikuntzaren bila. Gure pertsianaren berezitasuna honako hau da: eguzki plaken bidez lortutako energiarekin, pertsianaren motorra abiaraziko da, mugikor eta urrutiko kontroleko agintearen bitartez zauden lekutik norberaren etxeko pertsiana mugiaraziz. Berrikuntza honekin, jendea eroso eta aldi berean seguru sentitzea ahalbidetuko genuke, pertsiana automatikoki igo eta jaitsiko litzatekeelako eta baita lapurrek etxean mugimendua ikusiko luketelako. Horrela, alde horretatik seguru sentituz.

Bezeroek gure produktua erosiko balute, alde batetik, ingurumenean positiboki eragingo lukete, honako honek energia berriztagarrien erabilera eskuragarri duelako. Bestalde, esan bezala, oportetara joandakoan kezka sortzen digun "pertsianak nola utzi" hori amaituko litzateke. Gainera, erosotasuna eskainiko luke, zauden lekuan zaudela pertsiana igo eta jaisteko aukera ematen duelako. Hori horrela, guk eskaintzen dugun proiektu honek balio hauek izango lituzke:

Nobedadea, gure inguruan ez dutelako oraindik horrelako produkturik asmatu. Beraz, guk produktu hau salduko bagenu, arrakasta handia izango lukeelakoan gaude, hainbat aukera eta onura eskaintzen dituelako.

Ingurumenean kalte gutxiago eragitea ahalbidetuko genuke, eguzki plakei esker egun eguzkitsuetan pertsianak igo eta jaitsiko lituzkeen motorraren bateria kargatuko litzatekeelako, beste inongo elektrizitaterik erabili gabe. Zergatik eragingo luke kalte gutxiago eta ez inongo kalterik? Egun euritsuetan eguzki plakek ez dutelako beharrezko argi guztia lortuko motorrak funtziona dezan. Hori horrela, kasu horietarako argi korrontea erabili beharko litzateke.

Beste aldetik, **erosotasuna eta lan erraza** eskainiko luke, etxean ez gauden bitartean eguraldi txarra eginez gero, bakarrik jaitsiko liratekeelako pertsianak. Lehen esan bezala, inongo lapurretarik ez gertatzeko, hau da, etxean mugimendua dagoela adieraziaz **segurtasuna** ere eskaintzen du. Erosotasunari begira, honek programazio bat edukiko luke, nahi den orduan pertsianak igo eta jaitsi ahal izateko, baita argi sentsoreak, egunean zehar argia dagoenean igo, eta ilundutakoan jaitsi

dadin. Azken aukera hau gure kabuz guztiz kontrolatzea izango litzateke, mugikorreko aplikazio nahiz urrutiko kontroleko aginte bat erabiliz nahi dugunean igo eta jaitsiaraziz.

Balio kualitatiboari dagokionez, betiko pertsianen itxura edukiko luke, baina eguzki plakak dituenek, ohikoa ez den diseinu bat azalduko luke, gaur egungoak baino itxura modernoagoak izango liratekeenak.

Balio kuantitatiboari dagokionez, prezioak kalitatearekin bat egingo luke. Baina ikusirik produktu honek eskaintzen duena zer den, eta luzerako iraungo lukeela kontuan hartuz, prezioz ezin hobe ateratzen da. Garantia bat egingo genuke, noski.

Lehen gure inguruan horrelako pertsianak saltzen ez zirenez, guk saltzerako garaian ez genuke kontuan hartuko dirudun jendea soilik, diru sarrera arruntak dituzten familien artean ere hau saltzea ahalbidetuko genuke. Beraz, jende guztiarentzat izango litzatekeela kontuan izanik, **eskuragarritasuna** eskainiko genuke.